

Aretxa gazeta

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabeletoa • 1998ko ekainak 11 • 146. zka



Bikiak

40 bikote inguru daude herrian

Aldibi



**Aldibi,
etorkizunari
aurrea
hartuz.**



Aldibi autoak, S.A.



Izar autoak, S.L.

VOLVO

Mondrakar, S.L.



mazda

Musakola autoak, S.L.



GALLOPER

Aldikar autoak, S.L.



Co-Car, S.L.



HYUNDAI


Musakola autoak, S.L.



Aldikar autoak, S.L.

ALDIBI AUTOAK, S.A. • Zigorrola, 1 • ARRASATE • Tel.: 943 712002 \ Faxes: 943 796565

Kalitateak mugarik ez.



ARGI-PLASTIC

leihoen fabrikazioa P.V.C, aluminio eta poliuretano
Zigorrola, 1 8. Pabilioaia
Tel.: 77 11 30
ARRASATE



Gustatuko litzazuke zure birkia izatea? edo seme alaba birkiak?

Txaro Urrutia

(Langilea)

Seme-alaba birkiak izatea gogorra izango litzateke, baina erraz egokituko nintzateke.

Nire birkia izatea sekula ez dut planteatu. Eskolan birkiak izan ditudanean, beti ondo konpondu izan naiz beraiekin.



Dulce Fernández

(Langabetua)

Bai, gustatuko litzaidake nire birkia izatea. Gauza polita izan behar du, norbait beti ondoan izatea.



Juanpe Zubillaga

(Langilea)

Ez zitzaidan batere axola-ko birki bat izatea. Badirudi birkiek konfidantza haundia dutela elkarren artean eta beti daukazu norbait zure ondoan.

Bestalde, ume birkiak izatea lan doblea izango da beti.



Garazi Barbero

(Ikaslea)

Ez, ez litzaidake gustatuko, badaukat nire ahizpa Veronika. Gero haserretu egingo ginateke, beraz, nahiago dut birkirik ez izatea.



Mari Asun Elkorobarrutia

(Etxekoandrea)

Batekin nahikoa da. Bik batera lan haundia ematen dute.

Nire ahizpa birkia izatea ere ez litzaidake gustatuko.




Joakin Jauregi

(Langilea)

Bieleku asko ematen dute bik batera, gehitxo dela iruditzen zait.

Ni bakarra naiz. Agian polita izango litzateke anai birki bat izatea, baina horretarako eduki egin behar.



ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

Jauregi
Okindegia

Otalora, 10
Aretxabaleta

IRIARTE

Umeen
denda



Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 10 96




**FELIX
PAGALDAY**

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33
Etxekoa: 79 42 56



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria



Euzko Jaurlaritzako
kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Kultur etxea, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 01 05. **Erredakzio-kontseilua:** Irune Iturbe, Mirari Altube, Alberto Izagirre, Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Iratxe Bengoa eta Amaia Gastañaga. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Josu Urkia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Aretxagazeta



Etorkizuneko atxabaltarrak

Aretxagazeta 141. zenbakian aukera izan dugu etorkizuneko Aretxabaleta zelakoa izango den ikusteko. Dagoeneko guztiz diseinatuta dago trafiko plana, errekaren estruktura, etxebizitza zonaldeak e.a. Halako zehaztasunen aurrean, eta gainera konsesuatuak badira, ZORIONAK pentsatzen ihardun eta erabakiak hartu dituzuenoi.

Baina hau ez da eskutitz honen helburua. Gure kezka eta erreflexioa ETORKIZUNEKO ATXABALTARROI buruzkoa izatea nahi dugu bi gairen inguruan:

Txakur kakak

Merezi ote dugu hain dotore antolatutako herrian bazter guztietan txakurren kakak ikustea!

Ez dakigu moda kontua den hainbeste txakur etxeetan edukitzea, baina bat izanda ere, normala iruditzen al zaizue afalostean lasai-lasai txakurra kalera ateratzea bere beharrek egitera, edozein parke, atarte, espaloi, pasealeku eta abarretara?

Zergatik ez zaie txakurrei euren eginbeharrak norberaren etxean egiten irakasten?

Naturarekiko eta elkarrekiko errespetua norberarengandik hasi beharko genukeela deritzogu eta ez Udalak hartu beharreko erabakietatik. Ea ba, bakoitzaren txakur kakak jasotzen ditugun!

Zinea

Etorkizuneko Aretxabaletak barruko kultur ekintzak burutzeko (antzerkiak, filmak...) toki egokia behar du (antzoki edo/eta zinema) bertako inizatibak bultzatzeko (musika emanaldiak, teatroak...) eta urte osoan benetan filmak ikusteko.

Orain arte Udalaren aldetik egingakoa ez da nahikoa izan. Han izan

garenok benetan ez-eroso aurkitu gara: kalefazorik ez, soinua txarra goa ezin, filmeetan etenak, giroa benetan eskaxa, zarata asko, zigarroak piztuta saioetan zehar, etengabeko zirikatzeak, e.a.

Bestalde, Aretxabaletako filmak ez dira inon iragarri (hamabostero Aretxagazetan ezik) beste herri guztietakoak egunkari denetan iragartzen direnean eta herriko iragarki taulak Santa Ageda mutilak erre zituztela eta kitto.

Kulturan eta gizakiotan inbertitzeko beldurra kendu behar dugu horretarako kultura suspertuz, bai guregan eta bai agintariengan. **Etorkizuneko Atxabaltarrekin parean joan dadin.**

**M.R. A.G. (15356876-Y) ETA
BESTE ATXABALTAR BATZUK**

Portasoleko Jainen etorkizuna

Epa:

Eskutiz honen bitartez, egun P.A.G.L.E aurkitzen den egoera azaldu nahi dut, edo beste modu batean esanda, Portasol-eko jaien etorkizun beltzaz jakinaraztea.

Azken bederatzi urteotan, batzordeko kide izan naiz. 14-17 urte bitarteko gazte talde bat, Portasoleko Jaiak antolatzen ikusi dut, lan eta ilusio handiz gainera.

Gaur, lan guzti hau nola bapatean amaitu egin daitekeen ikusten dut. Historia berriz ere errepikatuko da. Honekin esan nahi dudana zera da: aurreko batzordea desagertu zen bezalaxe (partaideei dagokienez), oraingo hau ere desagertu egingo da.

Neuri behintzat aurtengo jaiak eta beste ehun urtetakoak ere ikustea gustatuko litzaidake. Baina errealista naiz, eta nire nahi hau egi bihur

dadin, batzorde honek ardurak hartuko dituen herritar berrien partaidetza behar du.

Ez dut ezer gehiago esaterik nahi. Horrela ba, jaiak iraun dezaten nahi duzuen guztiok jarri zaitezte harremanetan P.A.G.L.E.ko norbaitekin.

P.A.G.L.E.

Eskerrik asko

Lerro hauen bidez, Leizarra Musika Eskolako ikasle guztiei Gernikara joan izana eskertu nahi nieke. Bestalde, Aretxabaletan eta hemendik kanpo egingo diren hurrengo musika topaketa edo aktibitateetan parte har dezaten animatzen ditut. Azkenik, aurreko igandean, maiatzak 24, gurasoak Gernikara gurekin batera joan izana eta beraien laguntza eskertzea nahiko nuke, azken hau gabe aktibitate hauek aurrera eramatea oso zaila izango baitzen. Eskerrik asko.

**MARIATXEN URKIA
LEIZARRA MUSIKA ESKOLAKO
ZUZENDARIA**

Eskutitzen inguruko oharra

Aretxagazetara heltzen diren gutun guztiak identifikatuta etorri behar dira, izen-abizenak eta telefonoa adierazita. Egilea talde bat denean talde izena onartuko da.

Nahi izanez gero, gutuna egilearen inzialekin argitaratuko da baina kasu horretan NAN zenbakia adierazi beharko da.

Bestalde, oraingo honetan ohikoa baino gutun gehiago jaso ditugunez, datorren alean argitaratuko dira.

Okindegia - Gozotelegia

Aretxabaleta

Mitarte, 1-Tfnoa: 77 00 81

Aretxabaleta
Bertako okina

ARQUERO

CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tfnoa: 79 01 51

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero



Norbaitek Gerra Zibileko argazkirik izanez gero Aretxagazetara ekartzea eskertuko litzateke

Gerra zibilari buruzko erakusketa

Herriko argazki artxiboko taldeak, Gerra Zibilaren inguruko erakusketa jarriko du San Juanetako asteen zehar ikusgai Pagaldaixeneko lokalean. Oraintsu Bergaran egon berri den erakusketa da hau, Bergarako Ondo Bihurtu taldeari esker gauzatu dena.

Erakusketa honetako elementu bätzuei antolatzaileek Aretxabaleako garaiko argazkiak gehitu dizkiote. Horrela, orduko egoera latza gogora ekartzen duten argazkiak eta hainbat tresna, bandera, jantzi, bonba, udaletxeko artxiboko eskriturak... ikusteko aukera bikaina

izango da bertan.

Artxiboko kideak jo ta ke ari dira garai hartako argazkiak bildu nahian, jakina, ahalik eta erakusketa osatuena egiteko. Horregatik norbaitek Gerra Zibileko argazkiak izango balitu, lehenbailehen Aretxagazetara ekartzea edo antolatzaileekin harremanetan jartzea eskertuko litzateke.

Duda barik, historiako tarte hori bizi izan dutenentzat erakusketa interesgarria da honako hau, baita gainontzeko herritarrontzat ere, gertakari latz haietara hurbildu ahal izateko.

San Juan suaren berotasuna gertu

Beste behin ere San Juan suak berotu eta argituko du herria San Juan bezperan. San Juan sua eta honen inguruan egiten den kantua izango dira, Santa Ageda mutilen tantaiaren igoeraz batera egun honetako ekintza esanguratsuenak. Urtero moduan arratsaldean txistulariak, buruhaundiak, Loramendi dantza taldearen emanaldia eta gauean musika dantzaldia izango dira. Usadioari jarraituz, San Juan erramileteak, kurtza eta ira berdea ikusiko dira zenbait etxetako ateetan.

Taxi geltoki berria

Herriko taxistek geltoki berria izango dute aurki, Errekabarren kalean Urats-gain egoitzaren parean. Lekuz aldatzeko eskaria beraien ahotik iritsi zen udaletxera. Taxisten proposamena Udalak bere automobilak izaten dituen lekura aldatzearena zen (eliza ostean). Udalak ordea arazoak ikusi zituen leku hori uzteko. Beraz, telefonoa ipini bezain laster, Urats gain egoitza aurrean kokatuko da taxi geltoki berria.

Euskaltegiaren egoitza berria obretan

Pasa den hilaren leian obrak hasi zituzten euskaltegia kokatuko den Nafarroa kaleko beheko solairuan. Solairu guztia egokituko da, zati txiki bat ezik. Bertan bost gela, irakasle gela, almagazena, komunak eta galdara gela egingo dira. Aipatutako obrak ekaina eta uztailean burutuko dira, abuztuan trasladoa egin eta irailerako lokal berrian ikasturteari ekin ahal izateko.

Euskaltegiak ate nagusi bakarra izango du, etxearen aurrealdean kokatuko dena. Honez gain, emergentziako atea atzealdetik izango du irteera.

Orain artean herriko talde ugariaren kokalekua izan da Nafarroa kaleko edifizio horren beheko solairua. Saretxo eta Zaratia bertan geldituko dira. Okila, Hiru-atx, Aratz, elkarri, zikloturistak eta San Jose-San Martin kofradia, berriz, Murubideko lokalera aldatu dira.



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Datorren urtean Elgeako parke eolikoa martxan jarriko da

Aurtengo azken hiruhilabetean aurreikusten da parke eolikoaren obrak hastea

Eólicas de Euskadi S.A. ko Javier Marqués eta Victor Gardeazabal kideak Aretxagazetako erredakzioan izan ziren, euren aurrekezpina egin eta bide batez, Elgeako parke eolikoaren nondik-norakoak emateko. Beraiek esan bezalaxe, "dena bere horretan joango balitz, obrak aurtengo azken hiruhilabetean hasteko moduan egongo ginateke". Aipatutako lanek sei-bederatzi hilabete bitarteko iraupena izango lukete eta, beraz, 1999ko amaiera aldera Euskal Herriko lehen instalazioa funtzionamenduan ikusteko aukera izango litzatekeela, gaineratu zuten.

Euskadiko energia estrategia

Eólicas de Euskadi S. A. energia eolikoaren garapenaz arduratzen da eta bere barruan, EVE (Ente Vasco de Energía) eta Iberdrola daude. Bere zeregina Eusko Jaurlaritzak 2005. urtera begira garatu nahi duen Euskadiko Energia Estrategian kokatzen da (3E-2005 plana). Energi eragin-kortasuna hobetu, energia alternatiboa sortu eta energia kontsumoa murriztu nahi ditu besteak beste.

3E-2005 Planean aurreikusten diren neurrien bidez, energia berriztagarrien partaidetza Euskal Autonomi Elkartekeo egitura primarioan %3,7tik %6,3ra gehitzea espero da.



Berrogei haize-errota kokatuko dira Elgeako mendilerroan, haize errota bakoitzak 600 KWko potentzia izango du

Elgeakoa, lehen parkea

Baimendutako proiektuen artean, Eólicas de Euskadiren asmoa "Elgeako mendizerra" izeneko parke eolikoa eraikitzea da lehendabizikoa. Parke honen instalazioa Barrundia (Araba), Oñati, Eskoriatza eta Aretxabaletako lurretan kokatzea aurreikusita dago.

Instalazioak 40 haize-errota izango ditu, unitateko 600 KWko potentzia dutenak. 66.000.000 kW/urteko sortzea espero da, honek 100.000 pertsonen kontsumoa gutxigorabehera (Gasteizko biztanleen %50a inguru) suposatzen du.

Aurreikusitako inbertsioa, berriaz, 3.600 milioi pezetakoa da.

Zer da parke eoliko bat?

Zonalde batean elkarri elektrikoki lotuak dauden haize-errota multzoari deitzen zaio parke eolikoa.

Parke eoliko bat osatzen duten elementu nagusienak hauexek dira: haize-errotak, kanalizazio elektrikoak parke barruan, subestazio elektrikoak eta sareari lotzeko linea elektrikoak. Honez gain, haize-errotak ezartzeko zimentaziozko azpiegitura obra bat egin beharra dago.

Haize-errota elementurik garrantzitsuena da instalazioan.

Martini

RELOJERIA - BITXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK

RKLI

Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 79 96 66

**ARBULO
HARATEGIA**

Santa Kurtz, 5
Tfnoa: 79 02 24
ARETXABALETA

Izozkiteki-Gozotegia
IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 79 93 58
ARETXABALETA

Gimnasio berria kiroletxean

Dagoeneko hasi dira kiroletxean berrikuntza lanetan. Proiektu honen helburua, kiroletxeko lekua hobeto aprobetxatzea da, gehien erabiltzen diren lekuen egoera hobetuz.


Skuash gela bakarra

Aurrerantzean, egingo diren aldaketak direla eta, skuash-ean aritzeko gela bakarra egongo da kiroletxean. Bestea, sauna zaharrarekin batera, gimnasioa izatera pasako da.

Gimnasio berri honetan gorputza lantzeko makina desberdinak egongo dira.

Bestalde, orain arte gimnasioa zegoen lekuan rokodromoa kendu eta izpilu bat jarriko da. Honela, gela osoa, aerobika, karatea eta mantenimentu gimnasia egiteko erabiliko da.

Beste batzuen artean, kortinak jartzea eta paretak margotzea



Irailetik aurrera gimnasio berria izango da kiroletxean

izango dira egingo diren aldaketak.

Berrikuntza guzti hauek uztailaren amaierarako amaitzea espero da, irailean, 98-99 ikasturtea kiroletxe eraberrituan hasteko.

Construlan enpresa izango da egokitzapen honetan arituko dena.

Gellaoko auzia Foru

Aldundira

Gellaok atxabaltar izan gura duela eta alegazioak aurkezteko epea zabalik dago udaletxean hilaren 24a arte. Oraindik behintzat alegaziorik ez da iritsi udal-etxera. Epe hori bukatzen denean, beste pleno bat egingo du Aretxabaletako Udalak, bertan bederatzi botu beharko dira gutxienez, hau da 2/3a, erantzuna baiezkoa izateko. Ondoren espedientea Foru Aldundira bidaliko da, eta beraien esku geldituko da erabakia. Gogoratu orain aste batzuk Eskoriatzako Udalak ezezkoa eman zuela gai honen inguruan, erabakia baiezkoa izan zen Aretxabaletako Udalaren kasuan. Azken erabakia, berriz, Foru Aldundiaren esku dago.

Emun kooperatiba eta Fagor taldearen arteko hitzarmena



Emun kooperatibak prentsurrekoa eskaini zuen ekainaren 1ean

Emun Kooperatibak eta Fagor Taldeak euskeraren erabilera areagotzeko Hitzarmen berri bat sinatu zuten pasa den ekainaren 1ean. Fagor taldeko lehendakaria den Juan José Ansoategi, Javier Gantxegi lehendakariordea eta Julen Arexolaleiba Emun kooperatibako lehendakaria egon ziren ekitaldian. Bestalde, Emuneko partaidea den Jon Sarasuak ere, izan zuen bere tartetxoa bertso batzuk botatzeko.

Emun Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatetik sortua den kooperatiba da.

Fagor Taldea eta Emun Kooperatibaren arteko Elkarlanerako Hitzarmen honen helburua, Fagor Taldea osatzen duten Kooperatibetan euskeraren erabilera eguneroko komunikazio-hizkuntza gisa planifikatzea eta inplantatzea da.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta

Maritxu
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Tfnoa: 77 11 76



Joxerra Zubizarreta, Jesus Mari Herrasti eta Felix Ormaetxea prentsaurrekoan

Gizabidea Fundazioaren 97ko memoria eta balorazioa

Joan den astean 97 urteko memoria eta balorazioa egin asmoz, prentsaurrekoa eskaini zuen Gizabidea Fundazioak Hezibideko egoitzan. Guzti hau Joxerra Zubizarreta fundazioko prentsa ardura-dunaren, Jesus Mari Herrasti lehen-dakaria eta Felix Ormaetxea idazkariaren ahotik entzuteko aukera izan zen. Datorren urteetan egingo diren ekintzen berri ere eman zen, bide batez euren burua ezagutaraztera emanez.

Hiru helburu

Beraien berbetan, iaz burutu-tako ekintzek hiru helburu nagusi izan zituzten: "bailarako hezkuntza sistema bultzatu eta azpiegiturak sortzea, kooperatibetan oinarritutako hezkuntz modeloa bultzatzea eta fundazioko kapitala igotzea".

Helburuetan oinarrituz iaz Eskoriatzako San Viator egoitzaren

erostea eta berriztea aipatu behar da, 500 milioiko kostua izan zuena. Honekin batera "Arizmendi Topaketak" eta honen inguruan argitaratu den liburua ere aipatu ziren. Balorazio oso baikorra egin zen topaketen inguruan, alde batetik jendearen partetik oso erantzun ona jaso baitzuten eta bestetik, Arizmendiarrietaren ideologia eta baloreak beste behin ere agerian gelditu baitziren. Gainera aurtengo Arizmendi topaketak martxan dira dagoeneko.

1.000 milioiko kapitala

Kooperatiben aldetik laguntza haundia jaso eta hauen ideologia zabaltzen saiatzen den fundazioak 1.000 milioiko kapitala izan nahi du 98 bukaerarako. Kapital honek sortzen duen errentagarritasunari esker, iazko aurrekontua 166 milioi ptakoa izan zen eta aurtengoa 177 milioi ptakoa izatera iritsi nahi da.

Eraiki gurekin

Atzo, hilak 10ean **elkarri** gizarte mugimenduak Eraiki proiektua aurkeztu zuen udaletxean. Hizlaria Tailer Nazionaleko kidea den Fernando Arzallus izan zen.

Eraikiren helburua Euskal Herrian bake prozesua martxan jartzen laguntzea da. Bertan azaldu zen moduan, estrategiaren oinarria, ideia eta ekintzak proposatu, defendatu eta laguntzea da; ikuspegi politiko desberdinen arteko komunikazio edo kooperazio esperientziak bultzatuz.

Guzti hau, elkarlanean eta demokraziaren alde diharduten esparruetan egingo da. Proiektu honen berri emateko maiatza eta ekaina bitartean batzarrak egingo dituzte herri desberdinetan.

Udaleku irekietan izena eman daiteke

Uda usaina-somatzen hasteaz bat, udaleku irekietarako izena emateko epea ere zabaldu da. Beste behin ere uztailaren 6tik 24ra lagun berriak egiteko eta euskaraz ondo pasatzeko aukera izango dute gazteenek. Uztailleko udalekuetan parte hartzeko 4 urtetik 13ra bitarteko adina izan behar da eta ludotekan eman daiteke izena, ekainaren 20a artean. Inskripzioa 3.000 pta. ordaindu beharko da. Honekin batera, 12 urtetik gorakoentzat antzerki tailerra, badmingtona, tenisa, eskalada, espeleologia eta bestelako ekintzak antolatu dira.

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 79 29 26


LEIBAR
arraindegia

Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA



Lazkao Txiki legebiltzarrean

“Gaur egungo zenbait telebista programak ikuslea tontotzat hartzen du, eta inuzente! deitzen dio”

Mosquerari ez zaizkio gustatu Lazkao Txikiren marrazki bizidunak. Itxuraz, ez dute agertzen Espainiako zenbait sinbolo eta erakunderekin -Goardia Zibila eta Ejerzitoarekin, adibidez- beharrezko errespeturik, eta iraindu egiten ei dituzte. Barregarri gelditzen direla, tontoen parean, azken finean. Horregatik, kontuak eskatu dizkio Zarraoari Legebiltzarrean, eta bide batez, PPkoek ere bat egin dute Mosqueraren eskariarekin.

Lehen begiratuan, barregarria ematen du albiste honek beronek ere: legebiltzarkideak batzordean bildu eta marrazki bizidunak ikusten, Lazkao Txikiren pasadizu eta ateraldi zelebreei neurria hartu guran. Baina bi aldiz begiratuta, kontu kezkarria da, eta esanguratsua oso.

Nik neuk, garbi daukat, gure kontura bizi den edozein erakundek kritikak jasotzeko prest egon behar duela beti, eta kritikatzeko daudela. Ejerzitoaren, edozein polizia motaren edo erakunde publikoen kontura barre egitea, edo haiek barregarri uztea ez da berria kultur produktuetan, ezta ahotik ahorako komentarioetan ere.

Ez hemen eta ez beste inon. Espainiako telebistan ematen zituzten Maqui Navajaren gora-beherak ez zituen ikusiko igoal Mosquerak; Historias de la puta mili, El Jueves edo antzeko komikirik ere ez du esku artean eduki. Oraingoan baina, euskarazko produktu bat topatu du, kapituloren bat edo ikusi, ezer asko ulertu ez, baina ez zaio gustatu. Asunto larria hau!

Iraina beste gauza bat da, hitz potoloagoa. Lazkao Txikiren marrazki bizidunetan ez dut uste irainik dagoenik, umorea esango nuke nik. Telebista kateetatik irainik jasotzen dituen beste bat da gaur egun: ikuslea bera. Zenbait telebista programak ikuslea tontotzat hartzen du, eta inuzente! deitzen dio, darabilen edukiaren edo eduki hori aurkezteko moduarekin. Eta hau bai, hau kontu larria da. Gero eta ugariago dira gainera mota horretako programak. Esan liteke halakoxeak komeni direla. Kasualidadez, programa horiexek izaten dira audientziarik handienekoak. Inuzente samarrak izango gara igoal denok!

UNAI LOIDI

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABAETA

**ORTOPEDIA
ORTO LAGUN**

*Izan zaitetz zeure osasunaren lagun.
Horretan geuk lagunduko dizugu!*

Kontzezino 2 • ARRASATE • Tfnoa: 79 89 34

BITXITEGIA

**MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA**

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57

TABERNA eta JATETXEEN GIDA

Arlutz taberna



TABERNA
ARLUTZ
MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA: 79 32 34

Gustoko musika

Mitarte, 16 • ARETXABALETA
Tfnoa: 79 32 34

Kixkor taberna



KIXKOR
taberna

Mitarte, 13 • ARETXABALETA
☎ 79 20 60

Artano taberna

Herriko
plazan
ARTANO

Girorik onena

Herriko plaza, 3 • 79 62 75

Josu harategia

- *Urdaitegia-Gozotegia*
- *kroasantegia*
- *Gertatutako janariak*

Josu Harategia

Mitarte, 1 • ARETXABALETA
Tfnoa: 77 03 08

Urbaltz taberna



URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

Express akeitegia

Express
akeitegia

zure gustoko giroa

Santa Kurtz, 16
ARETXABALETA ☎ 79 23 43

Basabe jatetxea

Menu eta
afariak
BASABE
JATETXEA

Basabe poligonoa • 79 91 84

Taberna Berri



Durana, 26 • ARETXABALETA
☎ 79 20 67

Mendiola erretegia

ESKORIATZA

Tfno 714345



◆ *Bazkari*
eta afariak
Astelehenetan
itxita

Mendiola auzoa • Eskoriatza

Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tfnoa: 79 85 57

Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • ☎ 79 92 01

Izotz taberna

Zure gustoko giroa

IZOTZ
TABERNA

Mitarte, 16 • 79 73 65

Ametz taberna




AMETS

Taberna eta kafetegia

Iparragirre, 4 • 79 01 29
Aretxabaleta

Mitartegarai



Mitartegarai
Jatetxea

Arientza auzoa
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 17 51



Gurea taberna

Jatetxea eta
taberna

GUREA

Eguneko menuak

Durana kalea • 79 20 64

Bikien mundu bitxia

Amaren sabelean elkar besarkatuz egon ondoren, mundura batera jaiotzen diren bi izakietaz ari gara biki hitza aipatzen dugunean. Mundu bitxia da hauena, sarri entzun izan da, elkarren artean harreman berezi bat dagoela.

Herrian 41 bikote inguru bada, gazteena 18 hilabetekoa eta 68 urtekoa zaharrena. Bitxikeriz betetako istorioak jaso ditugu batzuen ahotik.

Bikietaz berba egiten dugunean, bi biki mota aipatu behar dira: dizigotikoak eta monozigotikoak. Lehenak bi espermatozoidek bi obulu ernaltzen dituztenean sortzen dira, eta sexu berekoak izan daitezke edo ez. Normalean antz txikiagoa dute elkarrekin. Monozigotikoen kasuan, berriz, espermatozoide bakar batek obulu bat ernaltu eta gerora obulu hori bitan banatzen da. Geneak eta odol mota berdina izaten dute eta ondorioz, antz

haundikoak izaten dira.

IZAKERA DESBERDINA

Gure gaurko protagonisten gurasoek hasieran sustoa hartzen dela adierazi arren, jaiotzen direnean, poztasun eta ilusio berdinez hartzen direla azpimarratzen dute. Hala ere, bi izatean lana beti bikoitza izango da, edo hirukoitza.

Bestalde, bikiek izaera desberdina izaten dute normalean eta fisikoki ere desberdinak ikusten dira. Izaerari dagokionez, bikien artean konparazioak egitea ohikoa da. Era berean, beraien artean harreman berezia dagoela behin eta berriz entzun izan da. Ana eta Susana De la Concepción-en esanetan, beste anai-arrebekin baino konfidantza haundiagoa dute elkarren artean, nahiz eta beti haserre egon. Telepatia kontuak, berriz, lelokieriak direla diote Fran eta Andoni Miguelek. Baina bikien artean ohikoa baino harreman estuagoa sortzen dela esatean bat datoz gehienak. Xeli eta Mari Carmen Etxeandiak diotenez, "lotura haundia dago gure artean". Beraiek bizi izan



Ioritz eta Markel Saez de Gordo (18 hilab.)

Herrian ditugun biki gazteenak dira 18 hilabeterekin. Bi poltsa desberdinetan jaio ziren eta itxuraz ez dute antz haundirik. Odola ere desberdina ei dute. "Oso maite dute elkar, baina jo eta haserretu ere sarri egiten dira", Jaionek, euren amak kontatu digunez. Izaeraz ez dira berdintsuak, Markel ausartagoa da eta urduriagoa, Ioritz, berriz, zintzoagoa. Jose Ramon eta Jaionek hasieran ezustean hartu zuten notizia, baina behin umeak izandakoan, "merezi duela eta oso pozik daudela" adierazi digute. Ioritz eta Markel oso jatunak ei dira.



Nahia eta Ane Martin (5 urte)

Ane eta Nahia bikiek bost urte dituzte. Euren osabak Aere bikiak dira, baina hauek antz haundiagoa dute beraien artean. Ane eta Nahia oso desberdinak dira bai itxuraz eta baita izakeraz ere, beraz, jendeak ez ditu nahasten. Nahia zabalagoa da hasieran, baina behin konfidantza hartutakoan Ane ez da atzera gelditzen. Ikastolan klase berean egon arren, ingelesa eta gimnasia berezi egiten dira.

Bikiak izateak abantaila haundi bat duela garbi daukate: "beti daukagu jolasteko laguna", diote.

dutenez, "nagusiagoak egin garen heinean, lagunekin harremana txikiagotu egin da eta gure arteko harremana eta konfidantza gero eta haundiagoa bihurtu da". Era berean gaixotasun kutsakorrek batera izaten dituztela ere gehitu dute.

BI BIKOTE FAMILIA BEREAN

Beti pentsatu izan da bikiena heredagarria dela, baina horrek ez du zertan horrela izan behar, familia batzuk bikiak izateko joera haundiagoa duten arren. Ane eta Nahia Martinek esaterako, osaba bikiak dituzte. Ondoren kontatzen dizue-

gun beste kasu honek geneekin zerikusirik duen ez dakigu baina benetan bitxia da. Bada Aretxabaletan familia bat bost anaietatik bi bikote bikiak direnak, Torres-Velázquez familiaz ari gara. 29 urteko Txomin Torres bikietako batek esan bezalaxe, euren familian ez dute beste antzeko kasurik eza-gutu. Amak hiru haurdunalditan eta hirurak jarraian, bost seme ekarri zituen. Bikote batek antza du, baina ez bestek. Hala ere, hauetako batek anaia nagusienaren antza dauka eta bestek beste bikiena.

Honako beste kasu hau ere ez da

egunerokoa, bikotea neska-mutila da oraingo honetan. Rosa eta Jose Mari Polo bikiak dira, baina Rosa bere anaia baino egun bat lehenago jaio zen. Gainera arazo batzuk medio amak Rosa Aretxabaletan eta bere anaia Gasteizen eduki zuen egun bat beranduago. Bitxia ezta? Euren artean antzekotasun gutxi dutela esaten du Jose Marik, baina beraien arteko erlazioa beste seni-deekin baino hobea ei da.

Nolanahi ere gaurko gobidatu hauen esperientziak guztiak ere desberdinak dira, biki bakoitza bitxikeriz betetako mundu bat da.



Andoni eta Fran Miguel (23 urte)

Oso berdintsuak dira Fran eta Andoni Miguel eta antzekotasunagatik jendeak nahastu egiten ditu. Sei anai-arreben arteko gazteenak dira. Beti elkarrekin ibili izan dira, nahiz eta orain bakoitzak bere ikasketak egiten diharduen. Andonik kazetaritza bukatuko du aurten eta Franek Magisteritza. Izaeraz ez dira berdinak, Andoni izakera gogorragokoa ei da. Hala ere, gustuak antzekoak dituzte, biek jokatzen dute xakean eta orokorrean kirol guztiak atsegin dituzte. Euren ustez, bikien alde txarra, jendeak konparazioak egiten dituela da.



Susana eta Ana De la Concepción (21 urte)

21 urteko Ana eta Susana bederatzi anai-arrebetatik gazteenak dira eta zazpi loba ere badituzte. Amak sustoa hartu zuen izan zituenean, "ez zekien bi ginenik eta". Fisikoki hain desberdinak direnez, jendeak ez die bikiak direnik sinisten. Izaeraz ere ez dute antz haundirik. Ana karakter gogorragokoa da, isilagoa Susana. Nahiz eta beti borrokan ibili, beti elkarrekin daudela aitortzen dute eta konfidantza haundia dute elkarren artean. Lana ere leku eta makina berean egiten dute, baina errelebo desberdinetan. Mutil kontuetan gustuak ere antzekoak dituzte.

Izaro eta Done Larrea (18 urte)

Aitaren aldetik ba omen dituzte beste biki batzuk familian. Izaro bere ahizpa baino 20 minutu lehenago jaio zen. Oso berdintsuak direla esan genezake, eurak horrela denik uste ez duten arren. Lagunek eta ingurukoek ondo bereizten dituzte, baina maixu askok ez. Orain bi urterarte bananduta ikasi bazuten ere, Logse-ko azken bi urteak elkarrekin egin dituzte, zientzietako adarretik. Orain Izarok odontologia ikasi nahi du, Donek medikuntza eta biologia ditu buruan, baina orain arte moduan, ez dira guztiz bananduko ikasketa hauek Bilbon daude eta. Konfidantza haundia eta harreman estua dago bien artean.





Luis eta Jesus Velasco (60 urte)

Orainsu bete dituzte 60 urte eta aurki jubilatuko dira. Arrasatearrak dira, baina urteak daramatzate Aretxabaletan bizitzen. Txiki-txikitatik elkarrekin ibili izan dira, eta harreman estua dago beraien artean, “dena konpartitzen dugu eta konfidantza haundia dago bion artean”. Gaur egun ez dute antz haundirik, baina gaztetan berdin-berdinak ei ziren. Ezkondu ondoren hasi ziren desberdintzen baina aurretik auzokideek ere ez zituzten bereizten. Urte luzeetan zehar euskaraz ikasten ibiliak dira biak euskaltegian.



Xeli eta Mari Carmen Etxeandia (33 urte)

Gemes moduan ezagutzen ditugu. Itxuraz oso antzekoak dira, eta ezagutzen ez dituztenek nahastu ere egiten dituzte. Biek estetizien ikasi zuten, eta batera lan egiten dute gainera. Harreman oso berezia dago bien artean, beti batera daude, baina sekula ez da inbidiarik izan euren artean. Horrela gaixotasunak ere batera izaten dituzte, gripe eta katarroak esaterako. Planak bien artean egiten dituzte eta gero beren senarrei esaten dizkiete, hauek batzutan haserretu egiten diren arren. Batak bestea ordezkatu izan du sarritan, pediatrianean esaterako. Gustuak antzekoak dituzte, abestea eta pasiatzea dute gogoko.

Aretxabaletako bikien zerrenda

30/06/27	Jesús eta Jesusa Bengoa Leibar	71/03/14	Ainhoa eta Nerea Guridi Rodrigez
38/06/03	Jesús eta Luis Velasco Gonzalez	72/10/13	Nekane eta Nuria Aldai Mendizabal
40/06/19	Angelica eta Luisa Axpe Unanue	72/07/26	Ainhoa eta Iñaki Galfarsoro Madariaga
48/10/05	Mari Asun eta Juan Ramon Bengoa Gruzeta	72/07/06	Oihane eta Ibon Agirre Unzueta
50/12/21	Maria Jesus eta Rosa Mari Aldai Astola	73/04/18	Unai eta Ibon Errasti Perez
52/11/15	Jose Ignacio eta Antonio Bengoa Lete	73/07/25	Aiora eta Beñat Markaide Zubizarreta
53/01/31	Juan eta Pablo Txintxurreta Etxeberria	74/07/27	Fran eta Andoni Miguel Quintero
58/04/29	Maria Josefa eta Rosa Sánchez Espósito	76/09/30	Anabel eta Susana De la Concepción Da Silva
58/07/21	Iñaki eta Xabin Urreta Leturiondo	77/10/28	Enea eta Alaitz Elorza Mondragón
63/03/05	Lurdes eta Mari Jose Etxebarriarteun Arenaza	79/02/08	Asier eta Igor Dublán Carlos
64/06/27	Inuntze eta Itsaso Bengoa Urreta	79/03/22	Nuria eta Sonia Mateos Fuertes
64/07/15	Mari Carmen eta Xeli Etxeandia Garciaetxabe	80/03/02	Done eta Izaro Larrea Etxeberria
65/09/25	Alejandra eta Dioni Mateo Pavón	84/02/29	Leire eta Maider Otaegi Idigoras
66/03/13	Agustin eta María Peregrina Justel Lozano	86/08/05	Vanesa eta Eburne Gonzalez Rodrigez
66/04/24	Luis eta Miguel Corres Martín	87/01/18	Nahia eta Eneko Errasti Gonzalez
67/12/22	Jesus eta Juan Torres Velázquez	92/08/20	Nahia eta Ane Martin Miguel
69/03/05	Alonso eta Juan Carlos Dávila Galán	93/09/27	Lorena eta Herik Hidalgo Merino
69/03/10-11	Rosa eta Jose Mari Polo Criado	94/09/30	Jone eta Julen Perales Antxia
69/03/29	Txomin eta Oskar Torres Velázquez	96/04/13	Maider eta Jone Valdezate Fernandez
71/09/17	Juan Mari eta Javier Martínez Remedios	96/11/12	Ioritz eta Markel Saez de Gordo Bengoa
71/04/19	Iñigo eta Aitziber Urkia Galarza		

Goiko zerrendan 41 biki aipatzen dira. Hamaika neska-mutilak dira eta 30 sexu berekoak. Horietatik 11 mutilak eta 17 neskak. Urterik emankorrenak 1969-72 artekoak izan ziren, bakoitzean hiru biki jaio baitziren.

Zerrenda honetan ahalik eta biki gehien izenak jaso nahi izan ditugu, norbait ahaztu badugu barka diezagula hutsa! Informazio biltze lanetan lagundu digun Inma Migueli gure eskerrik beroenak.



Almeneko futbol taldea Gipuzkoako txapeldun

Almen Futbol Taldeko lehen urteko kadeteak Gipuzkoako kopako txapeldun izan dira aurtengo denboraldian.

Jesus Arregi eta Asier Ingiduak zuzentzen duen taldeak Zumarragan jokatu zuen finala Añorga taldearen aurka. Almenekoak 4-2 nagusitu ziren. Aimar Leibar eta Iñaki Uribetxebarria atxabaltarrak

eta Oxel Azkarate arrasatearra izan ziren golegileak. Azken honek bi gol sartu zituen.

Jende pilo hurbildu zen Añorga-Almen partidua ikustera; baita animatzera ere. Garaipena ondo ospatzeko, entrenatzaileak taldeko partaide eta beraien gurasoein batera sagardotegian afaria izan zuten. Zorionak!



Almeneko lehen urteko kadeteen taldea

Jalabeiri, Iñurrategi anaien hurrengo helburua

Dhaulagiritik bueltan, ongi etorri beroa jaso zuten Felix eta Alberto Iñurrategik. Maiatzaren 30ean, Murruxikorekin batera, herritar pilo hurbildu zitzaizen ongi etorria eman eta zoriontzera.

Beraien bederatzigarren zortzimilakoa egin ondoren, itxura opa-roa erakusten zuten, pixkat argalduta heldu baziren ere.

Makalu, Everest, K-2, Cho Oyu, Lhotse, Kangchenjunga, Shisha Pagma, Broad Peak eta Dhaulagiri 8.000ko mendiak egin ondoren, dagoeneko erabaki dute zein izango den beraien hurrengo helburua. Jalabeiri Tibet-en kokatzen den 7.200 metrotako mendia.

Iraila erdialdera abiatuko dira bertara. Oraingo honetan ere, "Al filo de lo imposible" programarekin grabaketak egingo dituzte.

Uztailerako Kirol Kanpaina

Datorren uztailerako kirol ugari antolatu ditu kiroletxeak. Besteak beste badmintona, tenisa, mahai tenisa, pilota, igeriketa, aerobika, piraguismoa, golfa, eskalada, espeleologia, naturako jarduerak, mendiko bizikleta eta orientazio lasterketa eskeiniko ditu programak.

Kirol hauetan plaza kopurua murriztuta dago, beraz, apuntatu nahi ezker, ekainaren 8tik 23ra bitartean izena eman beharko da kiroletxean.



Izen ematea ekainaren 8tik 23ra izango da

Joseba Larrinaga: Milan-eko lasterketan bigarren

Lau nazioetako txapelketan parte hartu zuen Josebak pasa den maiatzean. Lasterketan, Frantzia, Belgika, Espainia eta Italiako korrikalariak egon ziren. Pistako froga hau, 5.000 metrokoa izan zen.

Josebaren helburua lehen hiruren artean sartzea zen, eta munduko txapelketarako minima egitea. Lortutako bigarren postuaz bere bi helburuak lortu zituen.

Beraz, datorren abuztuan Birminghamen ospatuko den munduko txapelketan hartuko du parte.

Haur Txirrindulari Festa

Datorren ekainaren 14an, domeka, lehenengo haur txirrindulari festa ospatuko da herrian. Txirrindularitza promozionatzeko helburuaz antolatu du UDAko txirrindulari taldeak. Ekintzak goizeko 10etan hasiko dira partenoï parean. Egin beharko duten itzulia, Eskoriatza eta Aretxabaleta bitartean izango da.

Eguerdiko 12etatik aurrera, Ginkana frogak egongo dira leku berean, 14 urtetik beherakoentzat.

Maila bikaina Eskoriatza-Arrasate Krossean

Ekainaren 7an ospatutako Eskoriatza-Arrasate herri krossean, 108 korrikalarik hartu zuen parte. Gainera, aurreko urteetan baino maila hobea egon zen. Froga honetako garailea, Isaac Kirpono Keniatarra izan zen, 23'56" denborarekin. Hamar segundutara, Zornotzako Txomin Martin helmugaratu zen. Hirugarren postuan, Jhon Lorry sartu zen, Tanzaniakoa berau, 24'17" denborarekin. Emakumetan, berriz, Rosa Talaverak irabazi zuen, 29'00"ko denborarekin.

Alfonso Luelmo, Jesus Lombide, Joseba Berezibar, Jose Mari Guri-di, Miguel Pérez eta Maria Elena Llorente izan ziren lasterketa honetako atxabaltarrak.

Jose San Miguel

“Datorren urtean utziko diot entrenatzaile lanari”

Gaur egun herrian dauden pelotari ia gehienak, 40 neska-mutiko inguru, entrenatzen ditu Josek. Orain zortzi urte gaztetxoak entrenatzeari ekin zionetik, pelotak indarra berreskuratu du herrian. Hala ere, hartutako konpromezuari jarraituz, datorren urtean utziko duela argitu du.

Bestalde, aspaldiko pelota kontuez jarduteko aukera ere izan dugu Josekin.

• Gaur egungo pelotari tar-tea eman aurretik, kontaizkiguzu Jose zure gaztetako pelota kontuak...

Zortzi bat urte nituela hasi nintzen pelotan, gero utzita ere egon nintzen. Afizioa haundia izan arren, partiduetan txuriz jantzita-koan urduri jartzen nintzela gogoan dut.

Orduan guztiok egiten genuen pelotan, beste ezer ez zegoen eta. Hori bai, pelota beti aldean eramaten genuen. Herriko edozein hormak balio zuen pelotan egiteko eta geuk egindako pelotekin jolasten genuen gainera. Frontoiko lurra latza izaten zenez, pelotak botea eman ondoren ez zegoen hau nora joango zen jakiterik. Sarri ortozik egiten genuen pelotan, alpargatak ez apurtzearren. Egun bateko jornala balio zuen alpargata pareak: 5,5 pezeta, ordu-rako asko.

• Ez zegoen gaurkoak moduko pelota eta zapatarik orduan.

Ez, hura beste garai bat zen. Trapuak batu, estutu eta ariaz jositakoak ziren gure pelotak. Batzuetan lagunaren artean erosi ere egiten genituen Mantxuenean, bakoitzak bi erriel ipinita, 1,85 pezetan.

• Pelotak ere aldaketa nabarmenak jasan ditu, beraz. Nola dago gaur egun herriko pelota?

Orain urte batzuk pelota hilda



“Gaztetan pelota beti poltsikoan eramaten genuen”

egon zen herrian. Orain berriro ere indarra hartu du eta guztira 40 neska-mutiko inguru dabilta. Afizioa asko indartu da, gainera frontoia eskola ondoan egotean, neska-mutiko asko ibiltzen da bertan. Hala ere, futbolarekin askok uzten du pelota.

Herrian badira pelotari onak, baina fisikoa gehiago landu behar dutenak, partiduetan ahalik eta gehien errenditzeko.

• Adin batera heltzean, askok uzten du pelota, kirol gogorra delako beharbada?

Egia esan, kirol gogorra da. Espadratapura ipintzen bakarrik orduerdi baino gehiago kostatzen da. Fisikoki ere ondo gertatuta egon behar da; alperrak ez dauka hemen zereginik. Bestalde, eskuak ondo

zaindu behar dira, hauek minduz gero, akabo.

• Iturrigorri frontoiari dagokionez, zer moduz gelditu da frontoia itxi dutenean?

Udalarekin ezin naiz kexatu, asko lagundu du. Lehengo aldean ondo dago frontoia, hala ere, zabalik eta ezkutuan dagoenez han denetik egiten dute, zikin egoten da. Horrela jarraituz gero itxi egin beharko da.

Bestalde, frontoiak berak aldagela batzuk izatea ondo legoke.

• Zenbat denbora eskaintzen diozu pelotari?

Batzuetan asteko zazpi egunetan egoten naiz frontoian.

Normalean astegunetan lau entrenamendu gutxienez eta astebukaeretan zapaturu partiduak, batzuetan domeketan ere bai. Baina hau ez da frontoiko lana bakarrik, neska-mutikoak pozik eduki behar dituzu ilusioa eman eta horretarako partiduak antolatu behar dira... Gura-soek asko lagundu didate eta eskerrak horri.

• 60 urterekin ekin zenion entrenatzeari eta zortzi urte pasatu dira. Zer eman dizu pelotak urte luze hauetan?

Neska-mutikoak pozik dabilzala ikusteak poza ematen du, baita ondo dabilzanean eta partiduak irabazten dituztenean ere. Baina hor jarraitzeko afizio haundia eta denbora izatea garrantzitsua da. Ni ez naiz pelotari begira aspertzen. Hori bai, libertate apur bat bota dut faltan.

• Zu ordezkaturko zaituenik egongo da?

Norbait animatzea gura nuke, baina zaila da. Denbora libre asko behar da eta afizio haundia.

• Eta bukatzeko, Eugik ala Belokik irabaziko du banakako txapelketa?

Eugik irabaztea gura nuke.

Ander Zulaika nagusitu zen Pedro Guenetxea memorialean

Joan den ekainaren 6an IV. Pedro Guenetxea memoriale ospatu zen herrian. Bertan, kadete mailako bigarren urteko 84 txirrindularik hartu zuen parte. Horietatik, 48 izan ziren

froga bukaeran klasifikatu zirenak.

60kmtako froga honetako garai-
lea Atxukale taldeko Ander Zulaika izan zen, 1h 23'37"ko denborarekin.

Jarraian, Irunes taldeko Francisco

Vicente eta Lokatza taldeko Igoitz Gabilondo sartu ziren. Mendiko saria, Aloña Mendi Taldeko Iosu Lertxundik irabazi zuen.

Garaileari Pedro Guenetxearen emazteak, Francisca Sasiainek eman zion trofeo. Lorak, berriz, Erruñak eman zituen.



84 partehartzaille Guenetxea Memorialean

Olinpiada arrakastatsua

Pasa den zapatuan Kiroletxean ospatutako Eskolarteko IX. Olinpiada oso arrakastatsua izan zen. Guztira, Deba Garaiko ikastetxe ezberdinetatik etorritako 245 neska-mutil izan ziren.

Partaideek, makina bat kirol praktikatzeko aukera izan zuten bertan: tirolina, aerobika, uretako jolasak, mahai tenisa, arku tiraketa, ohe elastikoa eta golf-a beste batzuen artean.

11 urteko neska-mutil hauek ez ohiko kirolak praktikatzeko aukera ezin hobea izan zuten.

Haurren partaidetzaz gain, kirol bakoitzeko begiraleek eginiko lana ere bikaina izan zen.

Agur futboleko denboraldiari

Dagoeneko bukatu da futboleko denboraldia. Orokorrean preferenteak, Liga Vascako jubenilak eta infantilak izan dira denboraldi onena egin dutenak.

Preferenteak 3. postuan

Preferente mailako mutilak fin ibili dira pasa den denboraldian. Alberto Pérez-ek entrenatzen duen talde honek, 3. postuan gelditzea lortu du. Jokalariek makina bat tarjeta jaso dituzten arren, 115 ori eta 5 gorri, sartu dituzten golak ere ugariak izan dira. Konkretuki, 70 gol izan dituzte beraien alde. Jonan 13 golekin eta Erik 11golekin izan dira golegile nagusiak.

1. erregionalak maila mantendu

Juan Jose Etxebarriaren mutilek, 12. postua eskuratu dute bukatu berri den denboraldi honetan. 54 gol alde izan dituzte, aurka, berriz, 71. Talde honek hasiera batetik 1.erregionaleko maila mantentzea zuen helburutzat, datorren denboraldira begira mantenduko duena.



UDAlko preferente mailako jokalariek

Talde lan bikaina

Orokorrean bikain aritu da Daniel Armentiak zuzendutako taldea, klasifikazioan 6. postua eskuratu dute. Partaideek aspaldidanik ezagutzen dute elkar, eta honela taldeari sendotasuna eman diote. Orokorrean taldeak oso ondo funtzionatu duela adierazi digu Daniel Armentiak. Hala ere, kontutan hartzekoa da talde honek izan dituen bajak: 2 jokalaria Aurrera-Vitoriara joan ziren, beste bat, berriz, preferente mailara igo zen. Lander Ingidua, Ekaitz Armentia eta Ioseba Gonzalez izan

dira gol gehien sartu dituztenak. Lehengo eta bigarren mailako jubenilek, bestalde, aurreko urteko maila mantendu dute.

Kadete mailan aurten bi talde egon badira ere, datorren denboraldirako talde bakarra osatuko da.

Infantilek mailaz igo dute

UDAlko talderik gazteenak, mailaz igotzea lortu du. Santiago Moralesen talde honek, gogor lan egin du igoera hau eskuratu ahal izateko. Aurrerantzean ohorezko ligan jokatu dute.



Bainuetxearen inguruan antzerki elegantea

gure herrian bainuetxeak garai batean izan zuen garrantzia gogoratu asmoz edo, 1961.eko ekainaren 18an argazkian duzuen antzerki dotore hau taularatu zuen zenbait herritarrek. Herrian zinerik ez zegoen eta urtean behin edo birritan egiten zen antzerkiren bat, Andoni Antxiak azaldu digun moduan. Hijas de María eta Luistarren inguruan sortutako antzerki hauek herri guztia erakartzen zuten, herriaren antzerkirako zaletasuna agerian utziz.

Antzerki honekin batera bataioa ere ospatu zen eta urtebete lehenago aintzinako ezkontza bat, izugarrizko jendetza erakarri zuena. Azken honen arrakasta ikusirik, ez zuten birritan pentsatu eta hurrengo urterako antzerkia gertatu zuten. Dotorea izan zen, bainuetxera etortzen ziren Madrildar aberatsen bizimodua eta goi mailako gizartea garbi isladatu ziren bertan, erropak, aintzinako aulki eleganteak... Erdaraz egin zen, errealitateaz bat etortzeko, hala ere, bataioan euskara erabili zuten.

Aipatutako antzerkia eta bataioa Ibarra futbol zelaian ospatu ziren, kaletik pasakaile batean etorri ondoren. Izugarrizko emanaldi polita izan zen, garai bateko bainuetxea eta aberatsen bizimodua gogoratuz.

Argazkikoak goian ezkerretik eskumara: **Karmelo Igartua, Miren Zuazabeitia, Alejandro Urzelai, Maria Josefa Uribetxebarria, Angelita Larrañaga, Julita Gonzalez, (ezezaguna), Leonardo Zubiria, Belen Madinabeitia, Alvaro Zubillaga, Amaia Usandizaga, Mariano Otxoa, Amaia Antxia, Javier Iturbe, Resu Aretxaga, Mercedes San Migel, Jose Bengoa, Pili Lizarralde, Floren Elortondo, Migel Igartua, Andoni Antxia, Jose Antonio Leanizbarrutia.**

Behean: Txomin Otxoa, Jesus Lasagabaster, Pablo Urkia.



Amaia eta Andoni Antxia



Alejandro Urzelai eta Andoni Antxia

▼▼▼

LANA

◆ **Langaiko lan eskaintza: Komertziala.** Arabako lautada. Ref: 7362/2

Ileapaintzailea. Bilbo. Ref: 8888/4-9320/2-9433/2-9432/1

Matrizeria ajustatzailea. Mungia. Ref: 9335/3

Puntzonatzailea. Mungia. Ref: 9052/4

Sei galdaragin. Urretxu. Ref: 8938/2

Zerbitzaria. Durango. Ref: 8264/3

◆ **Lan eskaintza publikoak:**

Artxibo liburutegiko teknikaria. Erdi mailako titulazioa. Epea: 98/6/13. BAO 98/5/13.

Mantenimenduko ofiziala. Biltegiaren arduraduna. Epea: 98/6/14. NAO 98/5/15. Nafarroako gobernua-kultura saila.

Familia langilea. Epea: 98/6/14. NAO 98/5/18. Nafarroako gobernua-kultura saila.

Arkitektoa. Epea: 98/6/18. Berriozargo Udala.

Kultura koordinatzailea. Epea: 98/6/22. Etxarri-Aranazeko Udala.

Liburuzain laguntzailea. Epea: BOEn argitaratzeko zain. Durangoko Udala.



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.



DENETARIK

◆ Irakasle tituloduna klase partikularrak emateko gertu. Tfnoa: 77 17 42 (Marijo).

◆ Irrati programa baterako munduan zehar ibili den jendearekin kontaktuan jarri nahi dugu. Deitu Arrasate irratiko telefono hauetara: 79 58 40 (erantzungailua) 79 58 77.



BEKAK

◆ **Goierrri 2005 ideia berriztatzaileen II. sariketa.** Ideia berriztatzaile eta bideragarri batetik abiatuz, Goierriko eskualdean entpresa berri bat antolatzeko borondatea duten pertsona fisikoei zuzendua. Diru saria: 1- 300.000 pta hasieran + proiektua bukatu eta martxan jartzeko momentuan beste 700.000 pta. 2- 200.000 pta. Informazioa eta izen emate orria jasotzeko deitu 943 16 18 31 telefonora.

▼▼▼

ETXEBIZITZA

◆ Laredon apartamentua alokatzen da. San Juanetako asteen, uztaileen bigarren hamabostaldian, eta irailean. Tfnoa: 79 31 47.

◆ Lokal komertzialak salgai Aretxabaletan. Azalera desberdinetakoak (50 m²-tik 200 m²-tara) Toki egokian eta prezio onean. Tfnoa: 77 16 41-79 96 72.



LEHIAKETAK

◆ **Lazkao Txiki bertso-paperak.** Ordiziako Lazkao Txiki bertso-paper lehiaketa deialdia luzatu du Argi Berri elkarteak. Informazioa: 943 88 52 28.

◆ **Antzerkia.** Nafarroako Antzerki Eskolak Umeentzako Antzerki testuen VII. lehiaketa antolatu du 18 urtetik gorakoentzat. Informazio gehiago 948 22 92 39 telefonoan. Epea: abuztuak 1.

◆ **Kartel lehiaketa.** Arrasateko gaztetxeak antolaturik, uztaileen 6tik 12ra ospatuko den sexualitate astea iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du. Lema eta teknika libreak dira, baina kartelak honako esaldia eraman beharko du: "Sexualitateari buruzko astea Arrasateko Gaztetxean uztaileen 6tik 12ra". Epea: ekainak 22. Lekua: Arrasateko sexualitate zerbitzuan.



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28
ARETXABALETA

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA

ITURGINTZA



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

Jai usaina



Jai usaina somatzen da inguruan. San Juan Bezperarako eta San Pedrotarako gero eta gutxiago gelditzen da. Jaiak direla eta ez direla, **Portasoleko jaiak** uztailean ospatu izan dira. Aurten antolatzaileek laguntza eskatu dute jaiak antolatzen jarraitu ahal izateko. Beraz, jaien antolakuntzan partaide izan nahi duzuenok jarri harremanetan lehenbailehen aurreko urteko arduradunekin. Jaiak jarrai dezaten nahi badugu behintzat, jendearen inplikazioa beharrezkoa izango da. Eta hauek pasatakoan, oraindik urrun badira ere: Andramaixak. Dagoeneko bada berrikuntzarik herriko jai nagusietarako, **erraldoi berriak** izango ditugu. Aurrekoak jubilatuta eta berriak erosi ditu Udalak. Oraingoak askoz ere arinagoak ei dira, baina ez horratio merkeak, 970.000 pta balio zuen baserritar bikoteak.

Jaiekin batera opor usaina ere gero eta gertuago nabari da. **Herriko jubilatua**k aukera aprobetxatu eta Rosasen izan dira egun batzuk pasatzen. Majo ibili ei dira, hara eta hona lekuak bisitatuz, Rosas,

Cadaques, Pals... Kataluniako bazterrak ondo mugitu dituztela hori ziur.

Jubilatu aspaldi jubilatuta zen **Juan Arregi** baina oraintxu arte Alaveseko lehendakaria izan ondoren, aurreko batean utzi zion karguari. Jakin dugunez, sendagileak egin behar asko dituela eta bitzta lasaigoa eramatea gomendatu omen dio.

Aurreko astean, bestalde, Emun kooperatibak eta Fagor taldeak sinatu zuten hitzarmenean, beste batzuen artean hiru atxabaltarrek bota zuten euren sinadura: **Aitor Irurek** Fagor Automation-eko lehendakariak, **Ramón Domaika** Fagor Arrasateko lehendakariak eta **Juanjo Arabaolaza** Copreciko lehendakariak. Lan munduan euskarak merezi duen bulzada emateko pausu garrantzitsua da aipatu duguna.

Euskarak bere presentzia herriko elkarte eta komertzioetan indartzeko, bestalde, hor ari da jo ta ke Loramendi elkarteak. **Igor Etxabe**, **Amaia Ugarte-mendiarekin** batera hasita dago lan honetan, biak elkarlanean arituko dira, bat herriko elkarte eta taldeekin eta komertzioekin bestea. Gero eta presentzi haundiagoa hartzen ari da euskara bi esparru hauetan.

Bukatu aurretik, zapatuan ospatu zen Guenetxea Memorialean **Gorka Etxabe** aritu zen komentaria lanetan. **Manolo Zubillagak** badu ordezkaria aurrerantzean. Kazetari berria bikain aritu zen gainera. Ondo dago gazteei lekua uztea.

Bukatu aurretik lerro hauetatik agur bero bat luzatu nahi digu **Iker Sanz** lagunari, herriaren alde egin zuen lan guztiagatik, omenalditxo hau berarentzat.

Liburutegiko txokoa


Azken aldean hiztegi edo alfabeto modura eginiko liburu asko kaleratu da euskal idazleen artean; hor daude adibidez Atxagaren alfabetoak eta Anjel Lertxundirenak besteak beste. Oraingo honetan Sarrionandiak ipuin eta saiakera laburrez, aforizmoz eta besteen aipuez osatu du hiztegi forma duen, baina nobela bezala irakur daitekeen liburu hau.

Gai ugari tratatzen da hemen, askotan gai horien proposamena egiten duelarik idazleak gero irakurleak bere kabuz ondorioak atera ditzan.

Esan bezala hiztegi modura antolatzen dira ideia guzti horiek eta askotan hitz batek beste bat irakurtzeko gonbitea ematen digu amaieran, honela irakurketa lineala egin beharrean saltoka, atzetik aurrera edo guk nahi bezala irakurtzeko aukera ematen digu.

Hiztegi antolaketa hau berria den arren, esan beharra dago "Ni ez naiz hemengoa" eta autorearen beste liburu batzuetako erreflexio modua eta estiloa berregiten direla hemen ere.

Joseba Lopez de Armentia



Hitzen ondoeza

Joseba Sarrionandia

Txalaparta, 1997

EKAINA

8-20

19

14

domeka

HAUR TXIRRINDULARIEN FESTA

UDAko txirrindulari taldeak, txirrindularitza indartu asmoz, **haur txirrindularien festa** antolatu du. Bertan nahi duen guztiak hartu ahal izango du parte eta itzulia Aretxabaleta eta Eskoriatza bitartean egingo da. Txirrindulariek partenoï paretik irtengo dute goizeko 10etan. Ondoren ginkana probak izango dira Durana kalean.

TXISTU KONTZERTUA

Leizarra musika eskolako txistulariek goizeko 11,30etan kalejira egingo dute eta ondoren Kurtzebarri eskolan kontzertua eskainiko dute eguerdiko 12,30etan.

KONTZERTUA

Naróa Enekotegiren kontzertua izango da Zاراia zineman arratsaldeko 8etan kultura sailak antolatuta.

UDALEKU IREKIETAN APUNTATZEKO EPEA

Ekainaren 8tik 20ra udaleku irekietan apuntatzeko epea zabalik dago. 4 urtetik 13ra bitartekoei zuzendutako dago. Izen ematea ludotekan egin behar da, 3.000 pezeta ordainduz.

UDAKO KIROLETAN APUNTATZEKO EPEA

Kiroletxeak antolatuta udako kirol ihardueretan parte hartzeko epea zabalik dago. Besteak beste honako kirol hauek egiteko aukera izango da: badmintona, tenisa, mahai tenisa, pilota, igeriketa, aerobica, piraguismoa... Kiroletxean eman behar da izena.

TXONTXOGILO EMANALDIA Enkarni Genuak "Galtzagorriak"

obra antzeztuko du Udal liburutegian arratsaldeko 6etan hasita. 5-10 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago.

8-23

18

egüena

eguakotxa

KURTSO AMAIERAKO KONTZERTUA

Leizarra musika eskolari esker urtean zehar instrumentuak lantzen ibili diren ikasleen kontzertuak entzuteko aukera izango da. Arratsaldeko 6etan txistulari eta trikitilarien kalejiraz hasi ondoren, kontzertua 6,30etan hasiko da plazan. Honekin batera ekainaren 11tik 18ra bitartean arratsaldero kontzertuak eskainiko dira musika eskolan bertan.

23

martizena

SAN JUAN BEZPERA

Arratsaldean Loramendi dantza taldeko dantzariak, txistulariak eta buruhaundiak izango dira. Usadioei jarraituz, San Juan sua izango da gaueko 10etan plazan, ondoren dantzaldia eta goizaldera tantaia jasoko dute aurtengo Santa Ageda mutilek.

s.t. Ingeleseko ikastaroak uztaillean
Itzulpen Zerbitzua

(20 eta 30 ordukoak)
Maila guztiak/umeak eta helduak
Ekainak 29 - Uztailak 19
Informazioa: 943 79 00 69
Bulego orduak: 9 am - 12 pm
3 pm - 6 pm

Basabe Industrialdea Aretxabaleta
Tfnoak: 71 21 12
71 22 68

Zenbaki

Aholkularitza



LOGOPEDIA ZENTRUA

Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37-behea
Tel: 943 79 79 46
ARRASATE

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia

IMANOL

JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 79 05 83 ARETXABAleta

IKASTAROAK

ERAKUSKETA

ANTZERKI TAILERRA

Aretxabaletako aisialdi batzordeak, hau da, Ortzadar, ludoteka, herriko ikastetxeek eta kultura sailak osatutako taldeak, antzerki tailerra antolatu du. 12-14 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta dago eta Kurtzebarri eskolan emango da.

Ekainaren 29an hasita uztailearen 10a arte luzatuko da tailerra.

Ondoren bertatik sortutako antzezlanaren antzeztu beharko dute ikasleek uztailearen 11n.

Apuntatzeko ludotekan eman behar da izena, 3.000 pta da.

ARETXABALETAKO GERRA ZIBILEAN (1930-1939)

Aretxabaletako argazki artxibo taldearen eskutik ekainaren 23tik 28ra bitarteko astean Gerra Zibilaren inguruko erakusketa izango da Pagaldaixeneko lokalean. Astegunez arratsaldez egongo da zabalik, asteburuan, berri, egun osoz.

Argazkiak eta garaiko beste elementu batzuk, jantziak, udaletxeko eskriturak, bonbak, banderak... garai hartako gizarte, industria, politika... erakustera emango dute.



BEHARREZKO TELEFONOAK

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 01 05
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murruxio M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdiak

• SOS Deiak	088
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 79 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 77 10 43
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



Vitoriano Telleriarteri omenaldia 1933. ean. Argazkia: V. Telleriarteren alarguna

ERREKABARREN MERCATAL ZENTRUA

• JUANTXO URDAITEGIA	79 75 42
• MARI KARMEN OINETAKO DENDA	79 59 85
• IRUDI ILEAPAINDEGIA	79 80 90
• MIREIA ARRAINDEGIA	79 31 59
• ARAMAIO OKINDEGIA	79 64 87
• LEINTZ-ROSI	79 78 63
• ERREKABARREN FRUITATEGIA	79 96 43



25 urteko atxabaltar honek, Donostian egin zituen Dekorazio ikasketak, egun, bere lanbide bihurtu dena. Etxeak dekoratzeaz gain, bertan egotea ere oso gogoko duela esan zigun Sorayak.

• Zein lan egiten du dekoratzaile batek?

Nik altzarien proiektuak egiten ditut, baita eraikuntzen inguruko diseinuak ere. Burutu ditudan ikasketek barnekaldeko diseinu osoa egiten erakutsi didate.

• Non dago dekoratzailea eta arkitektoaren arteko muga?

Nik barneko dekorazio guztia egin dezaket, elektrizitatearena, iturgintzakoa, altzariena... baina zutabeak ikutu gabe. Gainontzekoa arkitektu

edo aparejadoreen lana da.

• Zein da zure dekorazio estiloa?

Bai klasikora bai eta modernora ere moldatzen dela esango nuke. Pertsona, lokala edo diruaren arabera egiten ditut diseinuak.

• Kreatibitate asko eskatzen du lanbide honek?

Bai, hala ere, askotan imaginazio asko izan arren, proiektuak bertan bera uzten dira; diru asko behar izaten da horiek ordaintzeko eta. Horregatik, normalean proiektu simpleagoak egiten dira, baina eskuragarriagoak.

• Zure lanean zeri ematen diozu garrantzi gehien?

Bezeroarekin zintzoa izateari eta esandakoa betetzeari.

• Zein itxurako etxeak gustatzen zaizkizu?

Harrizkoak, eta ez oso altuak.

• Zeinen etxea diseinatzea gustatuko litzaizuke?

Duda barik neurea.

• Zein ingurutan egiten du lan Construlane?

Batez ere Aretxabaletan, Arrasaten eta Aramaion. Urkulun adibidez, txalet eta baserri ugari egin ditugu. Orain dela urte asko, neure aitak ere Euskadiko Kutxa dagoen etxea egin zuen.

• Non ikusi duzu etxerik politena?

Galiziako herri batean. Falkon

“Nire etxea diseinatu eta dekoratzea gustatuko litzaizuke”

Crest en itxurakoa zen.

• Herrian gero eta gaxtagoa da etxeak eraikitzea?

Bai. Hala ere, alde batetik ondo iruditzen zait. Bestela jendea edozein lekutan hasiko litzateke etxeak eraikitzen. Mendiak galdu egingo lirateke.

• Gaiz aldatuz, zein da zure horoskopoa?

Kaprikornio.

• Zer da pertsonetan gehien baloratzen duzuna?

Adiskidetasuna. Ezagun asko ditudan arren, benetako lagunak bi dira.

• Perfumerik erabiltzen duzu?

Bai.

• Erretzailea zara?

Ez. Orain dela bi urte utzi nuen. Bapatean gainera!

• Baserri batean bizi zena gustatuko litzaizuke?

Bai, nire ametsa da gainera. Animaliak inguruan badaude, askoz hobe.

• Dekoratzailea izango ez bazina?

Albaitaria.

• Lorak gustatzen zaizkizu?

Bai, asko. Larrosa gorriak dira gehien gustatzen zaizkidanak.


• Soraya, Euroak arazoak ekarriko ditu?

Bai, ordenagailuekin zerikusia duten gauzetarako batez ere.

KOMIKIA

EGUNEKOTUAK GAUDE JADA

Mikel Arroiabe



Eibar - R. Sociedad
Compostela - Villareal
Oviedo - Las Palmas
Alavés - R. Sociedad
Alemania - Brasil
Alavés - R. Madrid
Yugoslavia - Nigeria
Español B - Barakaldo
Athletic - Brasil
Barakaldo - Deportivo - B
Holanda - Paraguay
Suedia - Italia

(E.T.B.)



MECA

Amillaga, 5
BERGARA

San Andres auzoa, 8
ARRASATE

ETXE MOBEL

M U E B L E S

A L T Z A R I A K

LOGELETAN
m a i s u a k

**Zapatu
arratsaldeetan
zabalik!!**



Eta orain
2. SOLAIRUA

**Saloi eta sofa
erakusketa**

Etxe Mobil, Deba Garai eta Behean zehar logela, sofa, saloi eta osagarriak errezago topatzeko merkatal zentrua. 48 urteko esperientzia. Bertako profesionalak zuzendua. **BENETAN HARRIGARRIA!**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxes: 79 41 82

ARRASATE